

Euskal gatazka, prentsaren portaera eta herritarren iritzia (1998-2001)

Petxo Idoiaga, Txema Ramirez de la Piscina
EHUko irakasleak

Esku artean duzun txostena hiru urte eta erdiko lanaren emaitza da; EHU-UPVko irakasle pare baten gidaritzapean, ikerketa-talde zabal batek egin duen azterketa sakona, alegia. ETAk 1998ko irailean indarrean jarri zuen menia da ikerketa honen abiapuntua. Helburua, berriz, honakoa: su-etenaren kariaz sortu zen egoera berria prentsak nolatan ezaugarritu zuen argitzea. Hartara, Espainian zein Euskal Herrian erreferentziazat hartzen diren 11 egunkari aztertu ditugu. CIES enpresak egindako iritzi-azterketa zabal baten emaitzek osatu dute ikerketa hau. Inkesta horren bitartez, prentsak jendarteko iritzian duen eragina arakatu dugu, baita herritarrek euskal gatazkaren inguruan jasotzen duten informazioaz duten iritzia ere.

This article tries to explain the principal conclusions obtained from a research work carried out in the Basque Country over the last three years by a large team of researches directed by two professor at the EHU-UPV. It also summarizes the informative behaviour, as well as the editorials, of the main daily newspapers published both in Spain and in the Basque Country (eleven in total) during the period of time comprising the new political situation originated after the cease fire declared by ETA in September 1998. This study is complemented by the results extracted from a survey done by CIES (3,000 phone surveys throughout the Spanish State). This survey analysed the influence of the media in public opinion trying to obtain some conclusions about the perception that citizens have of the Basque conflict.

1. Sarrera

Euskal Herria aztoratuta ibili da azken urteotan, bai politikoki, baita mediatikoki ere. Asaldura horren iturria 1998ko irailean jazotako gertaeretan dago. Hil horren 12an, 60 erakunde inguruk *Lizarrako Adierazpena* izeneko hitzarmena sinatu zuten. Bertan, euskal gatazkaren izaera politikoa aldarrikatzen zen, eta dei egiten zitzaien indar politiko guztiei elkarrizketa-prozesu bati ekin ziezaioten lehenbait-lehen, aurrez inorentzat gaindiezina gerta zitekeen baldintzarik jarri gabe. Prozesu horren faserik erabakigarriena «indarkeria-mota guztiak alde batera utzita» burutuko litzateke.

Lizarrako Adierazpena hitzarmenaren ondoren, ETAk “alde bakarreko su-eten mugagabea” iragarri zuen (98-09-16). Menia indarrean egon zen ia hamabost hilabeteetan Euskal Herriak oso egoera itxaropentsua bizi izan zuen. Atentaturik gabe, euskal gizartearen baitan berebiziko ilusioa piztu zen, populazioa bera guztiz sinetsita baitzegoen hura —urte batzuk lehenago Ipar Irlandan gertatu zen modura— baketze-prozesu baten atariko zela.

Menia indarrean egon zen garaian, abertzaletasunaren bi korrante historiko nagusiek —EAJ eta HB-EH— bat egin zuten. Hogeita bost urtetan lehendabiziko aldia zen, ordura arte enfrontamenduak eta ezinikusiak nagusi izan baitziren bi indar horien artean. Era horretan, burujabetzaren aldeko frontea osatu zen: Euskal Herria zen erabakitzeke ahalmena zuen subjektu politiko bakarra.

Horren aurka, PSOE eta PP alderdiek beste fronte bat osatu zuten, *konstituzionalista* izena hartu zuena. Berorrek euskal gatazkaren izaera politikoa ukatu eta Espainiako konstituzioa eta EAEko Autonomia-estatutua hartu zituen gaindiezinezko mugarriztat.

1999ko azaroaren 28an, ETAk menia urte bereko abenduaren 3an ofizialki amaituko zuela iragarri zuen. Iragarpen hartan, abertzaletasun moderatuari egotzi zion burujabetzaren bidean «hartutako konpromisoak bete ez izana», hura izaki meniaren hausturaren arrazoi nagusia.

Menia hautsita, erdi ahaztuta zuen iragan gordinera itzuli zen Euskal Herria: atentatuak, hildakoak, polizia-errepresioa, aztoramena kalean... Asaldura hura egunkarietako idazgeletan ere islatu zen. ETAk prentsaren munduarekin zerikusia zuten bi pertsona erail zituen: *El Mundo* egunkariko zutabegile Jose Luis López de Lacalle (00-05-07) eta *El Diario Vasco* kazetako finantza-zuzendari Santiago Oleaga (01-05-25). Horrezaz gain, kazetarien aurkako atentatu-saiakera ugari izan ziren, baita mehatxuak eta jazarpen-ekintzak ere.

Ikerketaren garaian, bestelako jazoera larriak ere gertatu ziren; hala nola, ezker abertzalearen inguruko zenbait medioren itxiera (*Egin* egunkaria, *Egin Irratia* emandegia eta *Ardi beltza* aldizkaria) eta zenbait kazetariren kartzelaratzea, ustez «ETArekin zerikusia» zutelakoan (gaur egun baldintzapeko askatasunean eta epaiketaren zain daudenak).

Gertaera horiek guztiek gehiago nahastu zituzten oraindik, ordura arte nahiko korapilatuta zeuden euskal kazetarien arteko harremanak. Horren guztiaren ondorioz, masa-hedabideen jarduna hizpide bihurtu zen. Alde horretatik, irakurtzen ari zaren lantxo honek, apalki bada ere, bere argi-izpi xaloa ekarri nahi dio eztabaida horri.

2. Metodologia eta helburu nagusiak

Txostengileez gain, ikerketa honetan beste zazpi kazetarik hartu dute parte: Jesus Barredo Gasteiz Irratiko informatiboetako buruak, Santiago Alvite Galiziako Telebistako teknikariak, Enric Xicoy *La Vanguardia* kazetako kolaboratzaile eta Ramon Llull Unibertsitateko irakasleak, Nerea Iriarte ETBko kazetari eta *Bertatik bertara* magazineko koordinatzaileak, Monika Rodrigo Getxo Irratiko kazetariak, Teresa Toda LAB sindikatuko Komunikazio Kabineteko kazetariak eta Gorka Espiau Elkarri gizarte-mugimenduko kide eta kazetariak. Kazetari horien parte-hartzeak berebiziko garrantzia izan du azterketa honetan eta beren ikuspuntu profesionala guztiz funtsezkoa gertatu da gure akademia-ikuspegia osatze aldera. Beren partaidetzarik gabe ezinezkoa zatekeen ikerlan hau. Beraiei, beraz, gure eskerronik zintzoena.

Azterketa hau kuantitatiboa eta kualitatiboa izan da, eta bi zutabe izan ditu: prentsaren gainean egindako eduki-analisia eta iritzi-azterketa sakon bat Espainiako estatu osoan.

Prentsaren eduki-analisia hamaika egunkarietako lehen orri eta editorialen azterketan oinarritu da. Hauek izan dira aztertu ditugun kazetak: Hego Euskal Herrian, *El Correo*, *El Diario Vasco*, *Diario de Navarra*, *Gara*, *Deia* eta *Euskaldunon Egunkaria*; Madrilgo *El País*, *Abc* eta *El Mundo*, Kataluniako *La Vanguardia* eta Galiziako *La Voz de Galicia*. Hogei hilabeteko tartea aukeratu genuen gure ikerketa aurrera eramateko: 1998ko irailetik 2000ko maiatzera arte (ETAren su-etena aldarrikatu zen hiletik Espainian hauteskunde orokorrak izan eta hurrengo hil osoa igaro arte). Aldi horretan, menia indarrean izan zen —hamalau hilabete eta erdiz— baita hautsi ere egin zen —beste bost hilabete eta erdiz—.

Lagina osatzeko, horrelako ikerketetan erabili ohi den metodologia baliatu genuen. Hartara, “aste konposatuaren teknika” erabiliz —lehen asteko astelehena, hurrengoan asteartea, asteazkena ondorengoan...— harik eta, era horretan, 87 eguneko lagina osatu arte. Egutegi horri —zoriaren kariaz osatu zena— bigarren bat ere gehitu genion, zenbait “data esanguratsurekin” (50 guztira). Bertan sartu genituen bereziki garrantzitsuak izan ziren zenbait gertaera, baina zorizko lagin horretan sartu ez zirenak; hauek, besteak beste: meniaren iragarpena eta haustura, Buesaren atentatua, kale-borrokako ekintzak, Jose Luis Geresta ETAkidearen heriotza eta Belen Gonzalez Peñalvaren atxiloketa. Era horretan, egunkari bakoitzeko 137 ale aztertu genituen (87 gehi 50).

Kontuan izanda hamaika kazeta zirela, horrek esan nahi du 1.507 ale aztertu genituela (lehen orri zein editorialak). Kazeta horiek Hego Euskal Herriko

informazio orokorreko prentsa-merkatuaren %96 bereganatzen zuten, egunkari ia guztiak aztertu baikenituen *Diario de Noticias* eta *El Periódico de Alava*¹ izan ezik. Gure uste apalean, lagin hori aski adierazgarria izan da, gai honi gagozkiola orain arte inoiz egin den handiena izan baita, zalantzarik gabe².

CIES enpresak izan du Iritzi Publikoko azterketaren ardura. 3.000 inkesta egin zituen, 1.500 Hego Euskal Herrian eta beste horrenbeste Estatuko beste nazionalitate eta lurraldeetan. Lagina 18 urtetik gorako pertsonen osatu zen, estratifikazio sinplearen laginketa erabiliz. Hautua egiteko ordenagailua maneiatu zen, ohiko sistema erabiliz (Cati system). Esan bezala, Hego Euskal Herrian 1.500 inkesta egin ziren (herrialde bakoitzeko 375). Estatuko beste herrialdeetan inkestak era honetan banatu ziren: Katalunian 400, Galizian 300, Madrilen 200, Andaluzian, 200 eta gainerako herrialdeetan 400. Horiek guztiak kontuan izanda, iritzi-azterketa osorako aurreikusten zen gehieneko laginketa-errorea +/- %1,8koa izan zen eta konfiantza-tasa %95ekoa. Telefono bidezko elkarrizketa hauek 20 lagunek egin zituzten 2000ko abenduan, eta erantzun-tasa %75ekoa izan zen.

Metodologia azalduta, labur ditzagun jarraian ikerketak izan dituen helburu nagusiak. Hauek, besteak beste:

- Euskal zein espainiar prentsak euskal gatazkari ematen dioten trataera aztertzea.
- Trataera horren eta sistema politiko-mediatikoaren artean ehundu diren harremanak arakatzea.
- Bakea lortzeko bide estu eta zail horretan behatutako egunkariak bete duten funtzioa epaitzea; hau da, errealitatearen bitartekari soilak, baketze-prozesuaren suspertzaile ala oztopo izan ote diren aztertzea.

3. Prentsa Hego Euskal Herrian.

XXI. mendearen hasieran, bi dira Hego Euskal Herriko prentsaren panorama ezaugarritzen duten adierazleak: merkatuari dagokionez, euskal prentsak duen finkapen-maila altua, alde batetik, eta Espainiako estatuan dagoen egoerarekin erkatuta dituen alde nabarmenak, bestetik.

Euskal merkatuak duen sendotze horren erakusle dira, adibidez, bai Nafarroan, bai EAEn, ehungarren urtemuga laster beteko duten bi kazeta historikoak —*Diario de Navarra* eta *El Correo*—, baita azken hamarkadan euskal prentsaren merkaturian izan diren gorabehera apurrak ere.

1. 1999ko datuen arabera, *Diario de Noticias* egunkariak 12.780 ale saltzen zituen egunero. *El Periódico de Alava* ez zegoen OJDko ikuskaritzapean. Azken estimazioen arabera, 3.000 ale inguru saltzen omen ditu. Bi kazeta horiek ikerketaren barruan ez sartzeko arrazoiak hauek izan ziren: batetik, beren eragin mugatua (salmenta-kopurua aski adierazgarria da) eta, bestetik, sailkatzeko genituen zailtasunak (beren ideologia ez baitzegoen —azterketa egin genuen garaian batik bat— ez abertzaleen atalean, ezta konstituzionalisten aldean ere).

2. Kontuan izan behar da, gainera, sarritan egun bakoitzeko fitxa bat baino gehiago bete behar izan duela aztertzaileak, dela gatazkarekin lotuta albiste bat baino gehiago agertu delako lehen orrialdean, dela gai horren inguruan ere, editorial bat baino gehiago agertu zirelako.

Euskal prentsaren berezotasunak lau oinarri sendo ditu. Honakook, alegia:

- Estatuko irakurketa-indizearen batezbestekoaren gaintik dezente gorago egotea —180 ale saltzen dira mila biztanleko Hego Euskal Herrian eta 105 Espainian, (Dz. Nosty 2000:78)³—. Hala ere, Europako batezbestekoaren (217 ale) azpitik gaude.
- Bere izaera bipolarra. Euskal Herrian kazeta nazionalistak eta ez nazionalistak edota konstituzionalistak ditugu.
- Agenda propioa egituratzeko egin duen apustua. Dema hori Euskal Herriak dituen berezitasun historiko eta kulturaletan oinarritzen da. Euskal Herrian jendarteko iritzia ez da Espainian bezala egituratzen, beste modu batera baizik (Azpillaga, De Miguel, Zallo 2001: 6). Herritarrok, adibidez, ez dugu informazio politikoa masa-hedabideen bitartez bakarrik jasotzen, herritarrak hemen errealitate *birtuala* egunero gizartean —bere auzunean, lantokian edo lagun-arteke giroan— sumatzen duenarekin alderatzeko aukera baitauka.
- Bere izaera elebiduna. Euskal Herria, Katalunia eta Galizia dira Espainiako estatuan antzeko fenomenoak erakusten duten nazionalitate bakarrak.

Aztertu ditugun egunkariak lau atal nagusitan banatu ditugu, irizpide geografiko eta ideologikoen arabera:

Hego Euskal Herrian argitaratzen diren kazetak:

- Abertzaleak: *Euskadi Información*⁴ + *Gara*, *Deia* eta *Euskaldunon Egunkaria*.
- Ez abertzaleak edota konstituzionalistak: *El Correo*, *El Diario Vasco* eta *Diario de Navarra*.

Estatuko beste erkidegoetan argitaratutako kazetak:

- Estatuan nagusi diren egunkariak: *El País*, *Abc* eta *El Mundo*.
- Katalunia eta Galizian nagusi diren egunkariak⁵: *La Vanguardia* eta *La Voz de Galicia*

3. Hego Euskal Herriko irakurketa-indizea erabakitzeke, kontuan izan ditugu B. Dz. Nosty-k bai EAE bai NFKrako ematen dituen indizeak.


4. *Euskadi Información* sei hilabetez egon zen kalean; *Egin* itxi (1998ko uztailean) eta *Gara* sortu artean (1999ko urtarrilean), alegia.

5. Bi nazionalitate horietan euskal gatazkak duen oihartzuna zein zen jakiteko, bi egunkari horien ikerketari guztiz garrantzitsua generitzon.

Ondoko taulak aipatutako kazeta horien ezaugarri nagusiak biltzen ditu:

Aztertutako egunkariak				
Hego Euskal Herrian argitaratuak				
Izena	Joera	Noiz sortua	1. Pentsa abertzalea	
			Salmentak ⁶ (OJD 2000)	Irakurleak (CIES/EGM 2001)
<i>Gara</i>	Ezker independen.	1999	50.000	135.000
<i>Deia</i>	Zentro-eskuina	1977	30.000	88.000
<i>Eus. Egunkaria</i>	Zentro-ezker indep.	1990	14.205	38.000
2. Pentsa konstituzionalista				
<i>El Correo</i>	Eskuin liberala	1910	129.190	479.000
<i>El Diario Vasco</i>	Eskuin liberala	1934	94.499	313.000
<i>Diario de Nav.</i>	Eskuindarra	1903	63.762	195.000
Hego Euskal Herritik at				
3. Estatuko prentsa				
<i>El País</i>	Sozialdemokrata	1976	436.302	1.575.000
<i>Abc</i>	Eskuindarra	1903	291.950	915.000
<i>El Mundo</i>	Eskuin liberala	1989	291.063	855.000
4. Katalunia eta Galiziako prentsa				
<i>La Vanguardia</i>	Zentrokoa	1881	191.673	625.000
<i>La Voz de Gal.</i>	Zentrokoa	1882	107.027	500.000

Aurrera jo aurretik azpimarra dezagun hemen, dagoeneko agerian gelditu den datu esanguratsua: Hego Euskal Herrian hautesleria eta irakurleriaren artean sumatzen den etena. Horratx grafikoa⁷:



6. *Gara* eta *Deia* kazetei dagozkien zifrak estimatuak dira, ez bata ez bestea ez baitaude OJDko ikuskaritzapean.

7. NFKn 1999ko ekainean eta EAEn 2001eko maiatzean izandako hauteskondeez ari gara. Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak eta Nafarroako Diputazioak emandako datu ofizialetan oinarritu gara erkaketa hau egiteko.

Aurrerago izango dugu fenomeno honen inguruan zenbait ohar egiteko parada. Ondoren datozen datuak ere lagungarri gerta dakizkiguke zeregin honetan.

4. Emaitzarik aipagarrienak

4.1. Kuantitatiboak

Kazeta guztiak behatu ondoren eta aipatutako irizpideak aplikatu eta gero, ondoriorik aipagarrienak ondoko taula honetan bildu ditugu:

Euskal gatazkaren garrantzia prentsan				
Kazeta	Zenbat bider azaldu den lehen orrialdean	Gaia lehen orrialdean agertzen den ehunekoa (%)	Eguneko albisterik garrantzitsuena (%)	Editorialetan duen presentzia (%)
1. Prentsa abertzalea				
<i>E.Egunkaria</i>	188	100	58.6	80
<i>Deia</i>	108	90.8	50.5	51.7
<i>Gara</i>	193	97.7	79.3	55.4
2. Euskal prentsa konstituzionalista				
<i>El Diario Vasco</i>	126	96.5	52.8	31
<i>El Correo</i>	126	97.7	49.4	29.8
<i>D. de Navarra</i>	71	65.5	34.4	30.8
3. Estatuko prentsa				
<i>Abc</i>	52	51.7	24.1	40.2
<i>El País</i>	79	73.6	34.5	33.3
<i>El Mundo</i>	92	75	35	25
4. Katalunia eta Galiziako prentsa				
<i>La Vanguardia</i>	37	39.1	20.7	26.4
<i>La Voz de G.</i>	42	44.8	16.1	11.4
Batez beste	101.3	75.6	41.4	37.7

Datuok adierazgarriak ez ezik, argigarriak ere badira. Zalantzarik ez da: euskal gatazka Ignacio Ramonet-ek (1998:12) *mega-gertaera*-tzat hartzen dituen jazoera horietako bat da: lau egunetik hirutan agertzen baita lehen orrialdean (%75,6); hamar egunetik lautan albiste nagusia da (%41,1) eta hiru egunetik baten baino gehiagotan presentzia du editorialetan (%37,7). Nekez aurki liteke hain garrantzi handia eta hain luzaroan biltzen duen gertakizunik, ez behintzat gerra-egoera ofizialki deklaratu ez den aldian. Euskal gatazkaren trataera informatiboan, beraz, aldia eta aldea oso garrantzitsuak direla.

Dena den, garbi esan beharra dago, aztertutako kazeten artean, aztergaiarekiko inplikazio-maila desberdina agertzen dela. Konpromiso hori irizpide geopolitikoaren arabera egituratu da; hau da, euskal gatazkarekiko zenbat eta gertutasun handiagoa izan, orduan eta garrantzi handiagoa ematen zaio. *Ranking* horretan prentsa abertzalea azaltzen da puntaren goialdean; bigarren tokian, baina oso

gertutik, euskal prentsa konstituzionalista dator; hirugarren lekuan, Estatuko prentsa eta, azkenik, eta distantzia dezentera, Katalunia eta Galiziako prentsa.

4.2. Kualitatiboak

Ikerketaren alderik kualitatiboena ondoko tauletan agertzen da. Ondorioen irakurketa errazte aldera, eta kazeten artean sumatzen zen afinitate ideologikoak kontuan izanda, egunkari guztiak bi taldetan banatu ditugu:

- Kazeta konstituzionalistak (euskal prentsa konstituzionalista, Estatuko prentsa eta Katalunia eta Galiziako prentsa)
- Prentsa abertzalea

Ondoko ideiak editorialetan agertu ziren proposamenak dira. Ezinbestez, laburtuta. Nabardura askotxo daude. Horregatik, beharrezkoa da taulan agertzen den informazioaz gainera, oin-oharretan azaltzen diren ñabardura horiek ere irakurtzea.

8. Dena den, *La Vanguardia* egunkariak garbiri defenditu zuen (zortzi aldiz, gainera) oso positiboa zela «HB instituzioetan integratzea». Orobat, alderdi honi garbiki exijitu zion indarkeriaren gaitzespena eta «ez ematea inori demokrazia-leziorik». Jarrera horren erakusgarri, ikus ondoko egun hauetako egunkariak: 98-11-29, 98-12-08-, 99-01-10, 99-02-03, 99-02-19, 99-09-28, 00-02-14, 00-04-24.

9. *El Correo* egunkariak onetsiko luke marko konstituzionalaren balizko aldaketa bat, «baldin eta euskal zein espainiar gizartearen gehiengoak horrela onartuko balu».

10. *La Vanguardia*-k argiro defenditu zuen indar politiko guztien arteko elkarrizketa-prozesua, baita krispazio-giroa jaitsi-beharra ere. Ikus bestela 98-09-22, 99-05-19, 99-06-24, 99-08-24, 99-12-22, 99-12-27, 99-01-04, 00-01-22, 00-02-23, 00-02-27, 00-03-09 eta 00-04-24 egunetako egunkariak.

11. ETaren su-etenaren hasieran, kazeta honek jarrera irekia hartu zuen Lizarrako Itunaren aurrean. *El Diario Vasco*-k, 1998ko azken hilabeteetan, hitzarmen honek euskal gizartearen baitan piztu zuen “jakin-mina” azpimarratu bazuen ere, gerora testu berberarekin oso jarrera kritikoa hartu zuen. Dena den, oso bitxia da egunkari honetako irakurleriak bere kazetaz duen iritzia egiaztatzea. Bere ildo editoriala konstituzionalista izanagatik, *El Diario Vasco*-ko irakurleriaren %22,8k kazeta hau abertzaletzat hartzen dute eta %7,5 baino ez dira, aldiz, “españolista” dela uste dutenak (Bezunartea *et. al.*, 2000:132).

12. Laukitxo batzuetan zenbakirik ez agertzeak hauxe esan nahi du: ideia hori ez dela kazeta horretan behin ere islatu, taulan azaltzen den moduan, behintzat. Gerta daiteke, egunkari hori ideia horren inguruan aritzea, baina beste mota bateko gogoeta egiteko, edota beste atal batean.

13. Kazeta honetan Lizarrako akordioari buruzko bi apamen jaso ditugu editorialetan (98-11-29 eta 99-01-17). Berorietan islatzen den iritzia ez dator bat gainerako kazeta konstituzionalistek zeukatenarekin. Kataluniako kazeta nagusiaren ustez, «Lizarrako ituna hitzarmen politikorik mamitsuena» zen [orduan], nahiz eta «indarkeriaren aurrean jarrera garbirik ez izan».

14. Kazeta honek, halaber, uste du ETako presoen gerturatzearen aldeko aldarria euskal gizartearen gehiengoaren nahia dela. Alde horretatik, Madrilgo Gobernuari dei egiten dio dispertsio-politika amaitzeko, «politika hori agortuta dagoelako». Ideia hau bereziki ETaren menia indarrean egon zen garaian nabarmendu zuen *El Diario Vasco*-k. Hautsi eta gero, jarrera hori baztertuta geratu zen bere agendan.

15. Jarrera bertsua hartu zuen *El Correo* egunkariak. Kazeta honek sei aldiz editorializatu zuen euskal presoen egoeraren inguruan, eta Madrilgo Gobernuaren jarrera “inmobilitzatat” jo zuen.

16. Dispertsio-politikaren aurrean, *El País*-ek hauxe uste du: «prozedura horrek bere helburuak bete zituen, baina orain antzua da». Oro har ikusita, prozesu osoan Madrilgo Gobernuaren jarrerari egokia deritzo kazeta honek, nahiz eta hasieran, «gehiegizko zuhertasunez» aritzea egotzi.

17. *El Mundo* egunkariak hiru aldiz eskatu zion Madrilgo Gobernuari ETako presoak bere jaioterrietara gerturatzea.

18. *La Vanguardia* egunkariak bost aldiz aldarrikatu zuen autodeterminazioaren defentsak ez zuela «inor samindu behar», nahiz eta «Konstituzioa errespetatu behar den» (98-10-25, 98-10-26, 98-11-21, 98-11-29 eta 99-12-26); honako hau ere esan zuen: Eusko Jaurlaritzak egiten duen autodeterminazioaren defentsa HBrengana hurbildu eta horrek “harridura” sortu duela (98-09-22, 98-11-21 eta 99-04-01).

**Prentsa konstituzionalistaren ondorio nagusiak
(Euskal Herri barrukoa zein kanpokoa)**

Ideia	Zenbat aldiz agertzen den ideia hau, erabat edo partzialki, editorialetan
Abertzaleen batasuna	
1. Abertzaletasun moderatua erradikalizatu egin da. HB/EHrekin bat egin du, baita ETaren helburuekin ere; hori guztia terrorismoaren lagungarri gertatzen ari da.	<i>D. Vasco</i> 19 <i>El Correo</i> 11 <i>D. de Navarra</i> 11 <i>Abc</i> 24 <i>El País</i> 14 <i>El Mundo</i> 16 <i>La Vanguardia</i> . ⁸ 20 <i>Voz de Galicia</i> 16 GUZTIRA 131
2. Ibarretxeren Gobernua bera mundu erradikalarekin dituen loturen menpe dago, eta erakundeak era desleialean erabiltzen ari da.	
3. EAJk hautsi egin behar du HB/EHrekin.	
Baketze-prozesua	
1. Bakeak ez du ordain politikorik; ezin da ezelango arazo politikorekin nahastu.	<i>D. Vasco</i> 7 <i>El Correo</i> ⁹ 11 <i>D. de Navarra</i> 7 <i>Abc</i> 18 <i>El País</i> 12 <i>El Mundo</i> 4 <i>La Vanguardia</i> . ¹⁰ 24 <i>Voz de Galicia</i> 16 GUZTIRA 99
2. Konstituzioa eta Estatutua edozein eztabaidaren mugarri dira.	
3. Indarkeria dagoen bitartean, ezin da indar politiko guztiekin elkarrizketarik izan.	
ETAren su-etena	
1. Menia ETAren ahuleziaren adierazle da, polizia-eraginkortasun eta gizarte-mobilizazioaren ondorioa.	<i>D. Vasco</i> 3 <i>El Correo</i> 9 <i>D. de Navarra</i> 9 <i>Abc</i> 17 <i>El País</i> 13 <i>El Mundo</i> 4 <i>La Vanguardia</i> 3 <i>Voz de Galicia</i> 11 GUZTIRA 69
2. (Su-etena hautsi eta gero): Menia "amarrua" zela esaten zutenek arrazoia zeukaten.	
Lizarra-Garaziko akordioa	
1. Itun baztertzaila da, abertzale ez direnak zokoratzeko hitzarmena, alegia.	<i>D. Vasco</i> ¹¹ 9 <i>El Correo</i> 10 <i>D. de Nav.</i> ¹² 8 <i>Abc</i> 8 <i>El País</i> 7 <i>El Mundo</i> 3 <i>La Vanguardia</i> . ¹³ 3 <i>Voz de Galicia</i> 5 GUZTIRA 42
2. Ezin da izan euskal herritar ororentzako erreferentzia (Ajuria Eneko ituna, berriz, bai).	
Euskal gizartea	
1. Euskal gizartea askotarikoa eta heterogeneoa da, eta izate hori Gernikako Autonomia Estutuan bakarrik islatzen eta bermatzen da.	<i>D. Vasco</i> ¹⁴ 11 <i>El Correo</i> ¹⁵ 5 <i>D. de Navarra</i> 6 <i>Abc</i> 6 <i>El País</i> ¹⁶ 12 <i>El Mundo</i> ¹⁷ 12 <i>La Vanguardia</i> . ¹⁸ 5 <i>Voz de Galicia</i> 5 GUZTIRA 39
2. Arazo nazionala dagoela esateak eta Estatutuaren markoa ezbaian jartzeak biztanleriaren erdiari, bere gogoz kontra, ideia nazionalista inposatzea esan nahi du.	

Prensa abertzalearen ondorioak heterogeneoagoak dira. Sarritan, kontu berberaren inguruan irakurketa desberdinak eta, batzuetan, kontrajarriak egin zituzten kazeta nazionalistek. Hori guztia islatu nahi izan dugu ondoren agertzen den taulan¹⁹. Ageri denez, prentsa abertzalearen lehentasunak, editorialak egitean, desberdinak izan dira.

Prensa abertzalearen ondorio nagusiak (Euskal Herri barrukoa zein kanpokoa)									
Ideia-aren funtsa	Zenbat aldiz agertzen den ideia hau, erabat edo partzialki, editorialetan								
<p>Gobernu zentralaren (eta PSOEren) jarrera(k)</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Gobernu zentralak ez du, benetan, arazoa konpontzeko boron-daterik. Bere jarrera inmobilitista eta arduragabea da [eta ez du zerikusirik Toni Blair-ek Ipar Irlandako gatazkan erakutsi zuen aldar-tearekin (<i>Deia</i>)]. 2. Bai Gobernua, bai PSOE, tematuta daude abertzale-tasun osoarekin, deabrutu nahi dute. Beren asmo bakarra Lizarra-Garazi deuseztatzea da. 	<table> <tr> <td><i>Gara</i></td> <td>14</td> </tr> <tr> <td><i>Deia</i></td> <td>21</td> </tr> <tr> <td><i>E. Egunkaria</i></td> <td>28</td> </tr> <tr> <td>GUZTIRA</td> <td>63</td> </tr> </table>	<i>Gara</i>	14	<i>Deia</i>	21	<i>E. Egunkaria</i>	28	GUZTIRA	63
<i>Gara</i>	14								
<i>Deia</i>	21								
<i>E. Egunkaria</i>	28								
GUZTIRA	63								
<p>Abertzaleen batasuna. Lizarra-Garaziko Ituna</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Alderdi abertzaleak gai dira beren desadostasunak alde batera utzi eta baketze-prozesuan aurrera egiteko. 2. Lizarra-Garazik ezarritako bidea demokratikoa eta gatazka gainditzeko baliagarria da. Itun horrek adostasuna esan nahi du eta ez bazterketa. 3. Su-etena hautsi eta gero abertzaleen batasuna zailagoa da (<i>E. Egunkaria</i> eta <i>Deia</i>). 	<table> <tr> <td><i>Gara</i></td> <td>12</td> </tr> <tr> <td><i>Deia</i></td> <td>6</td> </tr> <tr> <td><i>E. Egunkaria</i></td> <td>21</td> </tr> <tr> <td>GUZTIRA</td> <td>39</td> </tr> </table>	<i>Gara</i>	12	<i>Deia</i>	6	<i>E. Egunkaria</i>	21	GUZTIRA	39
<i>Gara</i>	12								
<i>Deia</i>	6								
<i>E. Egunkaria</i>	21								
GUZTIRA	39								
<p>Espetxe-politika</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Gobernu espainiarrak legalitatea hautsi egiten du. Preso- egoera asaldagarria da. 2. Euskal gizartea dispertsioaren aurka dago. 3. Alderdi abertzaleak batuta daude gai honen inguruan. 	<table> <tr> <td><i>Gara</i></td> <td>4</td> </tr> <tr> <td><i>Deia</i></td> <td>3</td> </tr> <tr> <td><i>E. Egunkaria</i></td> <td>9</td> </tr> <tr> <td>GUZTIRA</td> <td>16</td> </tr> </table>	<i>Gara</i>	4	<i>Deia</i>	3	<i>E. Egunkaria</i>	9	GUZTIRA	16
<i>Gara</i>	4								
<i>Deia</i>	3								
<i>E. Egunkaria</i>	9								
GUZTIRA	16								
<p>Gatazkaren izaera</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Euskal gatazkak oinarri politikoak ditu; beraz, bere konponbideak ere politikoa behar du izan. 2. <i>Deia</i>. Gatazka ETA sortu aurretikakoa da. 	<table> <tr> <td><i>Gara</i>²⁰</td> <td></td> </tr> <tr> <td><i>Deia</i></td> <td>3</td> </tr> <tr> <td><i>E. Egunkaria</i></td> <td>11</td> </tr> <tr> <td>GUZTIRA</td> <td>14</td> </tr> </table>	<i>Gara</i> ²⁰		<i>Deia</i>	3	<i>E. Egunkaria</i>	11	GUZTIRA	14
<i>Gara</i> ²⁰									
<i>Deia</i>	3								
<i>E. Egunkaria</i>	11								
GUZTIRA	14								

19. Batzuetan, kontu garrantzitsuren baten inguruan kazetak ez badatoz bat; informazio hori parentesi edo kortxete artean agertu dugu. Besterik ez bada azaltzen, horrek esan nahi du ondorio horren inguruan adostasuna dagoela hiru egunkari abertzaleen artean.

20. Gure laginean gai honen inguruan editorialik topatu ez bagenuen ere, gai honen inguruan, kazeta honek duen ikuspuntua berbera da.

ETAren indarkeria

1. <i>Gara</i> : ETA, Euskal Herrian ireki den prozesu politiko berrian, eragile aktiboa da. Atentatuen ondoren, lehenengo eta behin, biktimekiko elkartasuna agertu behar dugu eta, gero, argi esan berorien erantzule bakarra ETA dela. Madrilgo Gobernuari ere gogorarazi behar zaio, meniaren garaian, aukera historikoa alfer-alferrik galdu zuela.	<i>Gara</i>	6
	<i>Deia</i>	4
	<i>E. Egunkaria</i>	3
	GUZTIRA	13
2. <i>Deia</i> : Euskal Herriak ez du onartzen indarkeria bitarteko gisa erabiltzea eta, gainera, ETAren aurrean bere protagonismoa baliatu nahi du.		
3. <i>E. Egunkaria</i> : ETA gatazka politiko baten adierazle da. Jarduera armatura bueltatzean, ETA alderdi abertzaleen arteko desadostasun-iturria da.		

EAEko Gobernu abertzalea

1. Ibarretxeren Gobernu irekia, askotarikoa eta elkarrizketaren laguntzailea da. Tentsioa baretu nahi du.	<i>Gara</i>	5
	<i>Deia</i>	3
	<i>E. Egunkaria</i>	3
	GUZTIRA	8
2. <i>E. Egunkaria</i> . Ibarretxeren proposamena [alderdien Mahaia] askotarikoa da, baina ez du Euskal Herria bere osotasunean hartzen.		

Euskal gatazkaren protagonistak ezaugarritzean, oso nabariak izan dira kazeta bakoitzak dituen fobiak eta filiak. Jose María Aznar eta Xabier Arzalluz izan dira, guk aztertu dugun aldian, adostasun eta desadostasun gehien bildu dituzten politikariak. Arzalluzen presentzia, gainera, Juan Jose Ibarretxeren beraren gainetik dago egunkari askotan. Joera horiek garbiro azaldu dira ondoko taulan. Beste hainbat sailkapen egin ditugu gure ikerketan. Hala ere, ondoko taula hau desberdintasun horiek ongien erakusten dituen delako uste dugu guk.

Ondoko taulak ez ditu buruzagi bakoitzari egokitu zitzaizkion termino guztiak, guri interesgarrien iruditu zaizkigunak baino. Alde horretatik, ez da, beraz, oso zientifikoa; bai, berriz, esanguratsua. Esan liteke, prentsa konstituzionalistaren ustez Aznar buruzagi demokratiko, elkarrizketaren laguntzaile eta bakegile dela, eta Arzalluz, berriz, predikari anker eta eldarniozalea dela. Prentsa abertzalearentzat, aldiz, Aznar baketze-prozesua sabotatzen duen buruzagi inobilista da. Arzalluz, ordea, buruzagi abertzale eta karismatikoa da.

Beraz, euskal gatazkaren trataera kualitatiboa laburbildu beharko bagenu, hauxe esango genuke: planteamenduetan sutsutasun nabarmena, protagonistak ezaugarritzean partzialtasun agerikoa eta analisiak egitean arduragabekeria ausartegia izan dira nagusi.

Aznar vs Arzalluz

Lehen orrialde zein editorialetan bi politikariei atxikitako adjektiboak eta termino arruntenak

Jose María Aznar		Xabier Arzalluz		
Prensa konstituzionalista				
Kazeta	Termino(ak)	Data	Termino(ak)	Data
<i>El Correo</i>	<i>Elkarrizketarako irekia</i>	98-10-03	<i>Ankerra, herrak janda inkoherentea</i>	99-12-22
<i>El D. Vas.</i>	<i>Irekia</i>	98-09-19	<i>Kriminalizazioaren salatzailea</i>	99-03-23
<i>El D. de N</i>	<i>Irmoa</i>	98-10-11	<i>EAJ, eldarnioz josia</i>	99-09-12
<i>El País</i>	<i>Baketze-prozesua ireki duen politikaria</i>	98-10-03	<i>Amildegira joateko prest dago</i>	98-11-30
<i>Abc</i>	<i>Bakegilea, tolerantia</i>	99-01-21	<i>Zitalkeria</i>	99-08-02
<i>El Mundo</i>	<i>Zuhurra</i>	98-10-03	<i>Mehatxua, salatu egiten du</i>	98-10-11
<i>La Vang.</i>	<i>Buruzagi karismatikoa</i>	98-10-03	<i>EAJko buruzagia</i>	98-11-13
<i>La V. de G.</i>	<i>Bake-laguntzailea</i>	99-01-09	<i>Predikaria</i>	98-08-18
Prensa abertzalea				
Kazeta	Termino(ak)	Data	Termino(ak)	Data
<i>Gara</i>	<i>Bakearen saboteatzailea</i>	99-03-22	<i>EAJren buruzagia</i>	99-05-19
<i>Deia</i>	<i>Inmobilista</i>	98-12-19	<i>Buruzagi jeltzalea</i>	99-03-14
<i>E. Egunk.</i>	<i>Harroputza, probokatzailea</i>	99-02-14	<i>Buruzagi karismatikoa</i>	99-09-19

5. Iritzi-azterketa

Lehen aipatu den legez, guk diseinatutako galdetegia erabiliz, 2000ko abenduan CIES enpresak iritzi-azterketa egin zuen²¹. Helburu nagusiak, hauexek: euskal gatazka-ren pertzepzioan masa-hedabideek duten eragina ikertzea eta hiritarrek komunika-bideen jardunari ematen zioten balorazioa jakitea. Azpimarratu behar da zundake-ta egin zenerako ETaren su-etena hautsita zegoela urtebete lehenagotik.

5.1. Inkestaren emaitzak

Kontu hauen inguruan galdera asko egin zitzaizkion biztanleriari. Horietatik guztietatik batzuk aukeratu eta laburtu ditugu ondoko tauletan. Lehena ondoko galdera honen inguruan egituratu genuen: «Nola baloratzen duzu prentsak, irrati-emandegiek eta telebista kateek euskal gatazkaren ulermenerako eskaintzen duten informazioa?» Hona erantzunak:

²¹. Inkesta hau Eusko Jaurlaritzaren *Baketze-prozesuak humanizatzeko Euskal Partenariazgoak* lagundu zuen diruz.

Hedabideek euskal gatazkaren inguruan eskaintzen duten informazioaz herritarrek duten iritzia

Hedabide-mota	Hego Euskal Herrian (%)	Estatuko gainerako lurraldeetan (%)
Prensa		
Positiboa	14	28
Negatiboa	38	17
Neutroa	19	24
ED/EE	30	31
Irrati-emandegiak		
Positiboa	13	30
Negatiboa	29	11
Neutroa	15	21
ED/EE	43	37
TB kateak		
Positiboa	16	41
Negatiboa	44	17
Neutroa	20	29
ED/EE	20	13

Informazioaren lehen helburua gertaerak ulertzen laguntzea da. Abiaburu horretan, kazetari guzti-guztiak egongo dira ados, seguru asko, edonolako izanda ETaren jardueraren aurrean duten jarrera etiko, profesional edo pertsonala. Hego Euskal Herrian, ordea, oso jende gutxik sinisten du horretan. Hor nonbait, kazetari-lanak ez du sinesgarritasun handirik, euskal gatazkaren trataerari dagokionez. Euskal eta espainiar iritzien arteko aldeak benetan esanguratsuak dira. Euskal herritarrek, oro har, oso kritiko epaitzen du hedabideen lana, eta okerren estimatzen duena, ezbairik gabe, TB bitartez jasotzen duen informazioa da.

Antzeko desakordioak ageri dira, baita ere, ondoko bi tauletan. Lehenengoaren helburua guk emandako baieztapen batekin herritarrek zuten adostasun/desadostasun-maila erakustea zen. Bigarreanean, ordea, herritarrei eskatu genien epai zezatela su-etenaren ostean ireki zen prozesu politiko berriaren kudeaketan, Madrilgo zein Euskadiko Gobernuak erakutsitako jarrera. Honatx erantzunak:

Masa-hedabideek bat egin behar dute Gobernu espainiarraren politika informatiboarekin

	Hego Euskal Herrian (%)	Estatuko gainerako lurraldeetan (%)
Gutziz ados	2	7
Ados	28	60
Desados	44	25
Gutziz desados	8	1
ED/EE	17	8

Eusko Jauriaritzaren eta Madrilgo Gobernuaren jarreraz herritarrek duten iritzia

	Hego Euskal Herrian				Estatuko gainerako lurraldeetan			
	Positiboa	Negatiboa	Neutroa	ED/EE	Positiboa	Negatiboa	Neutroa	ED/EE
Madril. Go.	10	58	11	21	39	33	19	10
Eusk. Jaurl.	32	25	20	23	8	61	14	16

Datuok kontuan hartuta, ondorio nagusia garbi dago: Euskal Herrian²² eta Espainian gailendu diren iritzi nagusiak oso urrun daude, maila guztietan. Horren arrazoiak hauek izan litezke:

- Euskal Herrian biztanleriaren zati handi batek —abertzaletasunaren ingurukoak, alegia— oso joera garbiak eta finkoak ditu. Portaera horiek oso nabarmen agertzen dira beren ideologia, identitate edota hautesle-portaerari buruz galde egiten zaionean.
- Euskal herritarrek egunero dituzte zuzeneko harremanak abertzaletasunaren eta indarkeriaren fenomenoekin. Harreman horretatik herritarrek ondorioztatzen dituzten gogoetak, naharoki, ez datoz bat masa-hedabideen bitartez helarazten zaizkien ikuspegiekin. Horretan, beraz, sortzen da etena. Horren guztiaren ondorioz, masa-hedabideetan gailendu diren ikuspuntuak —nagusiki antinazionalistak— ez dira, modu berean, zabaltzen jendarteko iritzian. *Isiltasunaren kiribilak* (Noelle Neumann, 1995), medioen eraginari dagokionean, behintzat, ez du Euskal Herrian bete-betean funtzionatzen.

Euskal Herrian, gainera, elkarteetan biltzeko dugun ohitura mendebaldeko gizarteetan dagoena baino dezente altuagoa da. Pertsona-arteak harremanak ugari izan ohi dira beti. Era guztietako elkarteak daude: kultura- zein kirol-arlokoak, gastronomikoak, erlijiosoak, ludikoak, e.a. Horiek guztiak harreman-sare trinkoa osatu dute gizartearen —oso eremu bizi eta dinamikoa da— non herritarrak dituen kezka eta zalantzak gizarteratu egiten dituen; askotan, sozializazio horren ondorioz hartzen duen mundu-ikuskerara ez dator bat masa-hedabideen bitartez jaso duen pertzepzioarekin.

Horretaz gain, kontuan izan behar dugu, Euskal Herrian dauden hainbat iritzi-sortzaile kualifikatu ere ez datozela bat hedabideen bitartez zabaltzen diren iritzi nagusiekin. Ez gara ari soilik sistema politikoaren sektore handi batez, baita gehien-go sindikalaz, elitezko kirol-klubez, eliza katolikoaren buruzagitzaz, musika-talde garrantzitsuenez eta hainbat artista eta intelektualez ere ari gara; hots, edozein gizartertaren oso esanguratsutzat hartzen diren iritzi-sortzaileez, hain zuen.

Horrek guztiak esan nahi al du masa-hedabideek iritzi publikoaren egituraketan duten eragina hutsaren hurrengo dela? Ez, gure ustez. Baina, auzi hau berezia da, hemen aurrez aurre jartzen baitira gizarte-egiturak alde batetik —hedabideen bitartez zabalduetako pertzepzioak— eta herritarren nortasun-ezaugarriak. Aurrez aurreko horretan lehiatzen diren mundua ulertzeko erak, sarritan, oso antagoni-

22. Testu honetan agertzen ez badira ere, Hego Euskal Herrian bertan desberdintasun nabariak daude EAE eta Nafarroako iritzien artean. Nafarroako erantzunek antzekotasun handiagoa dute Espainian gailendu diren iritzi nagusiekin EAEkoekin baino.

koak dira eta, horregatik, masa-hedabideen eragina txikiagotu egiten da. Era horretan ere, hobeto ulertzen da hautesleriaren eta irakurleriaren artean sumatzen den etena.

Estatuko beste lurraldeetan, berriz, ez dago horrelako antagonismorik. Sevillako, Valentziako edo Salamancako herritar batek, adibidez, euskal gatazkarekin zuzeneko harremana edukitzeko ez du apenas aukerarik. Beraz, bere iritzia eta masa-hedabideen bitartez jasotzen duen pertzepzioa bat egiteko aukera askoz handiagoa da.

6. Ondorio nagusiak

6.1. Euskal gatazka, gaur egun, “Estatu-arazoa” da, prentsako lehen orriak ia-ia monopolizatzen dituen “megagertaera” bat.

Eskainitako arreta informatiboa irizpide geopolitikoaren arabera egituratzen da; hots, gatazkarekiko zenbat eta gertutasun handiagoa izan —prentsa abertzalea— orduan eta tarte handiagoa dedikatzen zaio. Bai euskal prentsa konstituzionalistak, bai Estatuko prentsak (konstituzionalistak) ere arreta handia eskaini diote gai honi —seguru asko euskal auziak bete-betean jotzen duelako Estatuak berak duen egitura—. Garrantzi handia erakutsi duen arren, Katalunia eta Galiziako prentsak askoz epelago jokatu du euskal gatazkarekin —maila kuantitatiboan, beti ere—.

6.2. Prentsa konstituzionalistak (Euskal Herrikoak zein kanpokoak) bat egin du mundu osoan famatu egin den *antiterrorismo mediatikoaren* dotrinarekin (Marletti 1984, Soria 1987, Schelesinger 1991, Rodrigo 1991, Ehuki 1997, Zallo/ Ramirez de la Piscina 1999; Sadaba 1999, Idoyaga 1999, Coulter 1999, Ruiz Olabuenaga 2001).

Prozedura horrek hiru oinarri ditu: terroristek ezin dute irudi onik izan, terrorismoari ezin zaizkio ohiko kazetari-irizpideak aplikatu eta fenomeno terrorista sustengatzen duen ideologia suntsitu egin behar da. Dena den, ñabardura garrantzitsuak egin behar dira, gure ustez prentsa konstituzionalista guztia ez baita modu berean aritu. Madrilgo Gobernuarekin hartu duten jarreraren arabera zerrendatu dugu prentsa konstituzionalista osoa. Hiru portaera bereizi ditugu:

- a) Guztizko atxikimendua erakutsi duten kazetak (*Abc*, *Diario de Navarra* eta *La Voz de Galicia*).
- b) Laguntza sistematiko zertxobait ñabartua agertu duten egunkariak (*El Correo*, *El País* eta *El Mundo*).
- c) Laguntza ñabartua azaldu dutenak (*La Vanguardia* eta *El Diario Vasco*).

6.3. Bere txikitasunean, prentsa abertzalea konstituzionalista baino orekatuagoa eta askotarikoagoa da, mendekotasun ideologikoak agerikoak diren arren.

Kazeta nazionalistentzat Madrilgo Gobernu eta alderdi konstituzionalistak “besteak” dira; hots “aurkariak”. Oso jarrera desberdinak erakutsi dituzte garrantzi handiko gaien inguruan (ETAren indarkeria edota su-etenaren amaieraren aurrean, kasu). *Antiterrorismo mediatiko*-tik nabarmenki aldendu da.

6.4. Euskal iritzi publikoak euskarri propioak ditu.

Euskal Herrian dagoen asoziazionismo-maila altuak harreman-sare trinkoa osatu du gizartean eta, horren kariaz, naharoki lehiatzen dira masa-hedabideen bitartez gailentzen diren pertzepzioak eta herritarrek, beren egunerokotasunean, jasotzen duten mundu-ikuskerak. Alderatze hori, askotan, talka bihurtzen da eta horrek moteldu egin du hedabideek gizartean izan lezaketen eragina. Era horretan esplikatzeko da euskal eta espainiar iritzien publikoen artean sumatzen den etena.

6.5. Masa-hedabideek Hego Euskal Herrian ez dute sinesgarritasun handirik.

Euskal populazioa oso kritiko agertu da gatazkaren inguruan jasotzen duen informazioaren kalitatearekin. Bereziki nabarmena da telebista-kateek duten sinesgarritasun falta. Euskal herritarrek begia asko zorrotzu du komunikabideen aurrean.

6.6. Prentsak —hala abertzaleak nola konstituzionalistak— arreta handiagoa eskaini beharko lieke, kazetari-lanaren inguruan, mundu osoko kode etiko eta deontologikoetan ageri diren printzipio eta jokamoldeei.

Alde horretatik, bereziki gogoangarriak deritzogu Unescok 1978an kaleratu zuen adierazpenari —zeina gatazka-egoeretan komunikabideek bete behar duten funtzioez aritzen den— eta Abando hotelean 1999an ehunetik gora kazetarik adostu zuten dekalogo etikoari. Berorietan ohiko jokamoldeez gain —egiari zor zaion errespetua, informazioa eta iritzia bereizteko beharra, albiste-iturriak alderatzeko komenientzia...— masa-hedabideek gizarte-gatazken konponbidean egin dezaketenean lana azpimarratzen da. Guztiz sinetsita gaude komunikabideek ez dutela, berez, euskal gatazka konponduko, baina berorren eraldaketa laguntzeko duten ahalmena, ordea, handia da.

Bibliografia

- Azpillaga, P.; De Miguel, J.C. eta Zallo, R. (2002): *Estructura comunicativa y debilidades del sistema informativo en el País Vasco y Navarra*, (argitaratzeaz), Alberdania, Zarautz.
- Bezunartea Ofa et. al. (2000): *La prensa y los electores. El mito de la influencia*, EHU-UPV, Bilbo.
- CIES (2001): *Estudio de audiencia de medios en la Comunidad Autónoma vasca y Navarra (lehen olatua, maiatza 2001)*, Cies S.L., Iruñea.
- Coulter, C. (1999): *Contemporary Northern Irish Society*, Pluto Press, Londres.
- Diaz Nosty, B. (2000): *Informe anual de la comunicación 1999-2000, Estado y tendencia de los medios en España*, Zeta, Madril.
- EHUKI taldea (Armentia J.I./ Caminos, J.M. / Gonzalez Abrisketa M./ Palazio G.J./ Ramirez de la Piscina, Tx.) (1997): *Ajuria Eneko Ituna: Bakerako bidea ala aztoramen iturria?* Arabera, Gasteiz.
- Idoiaga, P. (2001): *Euskal gatazkaren begiak*, Alberdania, Zarautz.
- Marletti, C. (1985): "Prima e dopo. Tematizzazione e comunicazione politica", *Dati per la verifica dei programmi trasmessi*, RAI 68.
- Noelle-Neumann, E. (1995): *La espiral del silencio. Opinión pública: nuestra piel social*, Paidós, Bartzelona.

- OJD (Oficina de Justificación de la Difusión), Oleada Enero-Diciembre de 2000, [<http://www.ojd.es>]
- Ramonet, I. (1998): *La tiranía de la comunicación*, Temas de debate, Madril.
- Rodrigo, M. (1991): *Los medios de comunicación ante el terrorismo*, Icaria, Barcelona.
- Rositi, F. (1981): "La ricerca sull'informazione giornalistica. Fra ipotesi macrosoziologiche e problemi metodologici" in VV.AA., *Diritto all'informazione e manipolazione televisiva*, Trieste Consult, Trieste.
- Ruiz Olabuenaga, J. I. (2001): *Opinión sin tregua. Visos y denuestos del nacionalismo vasco 1998-1999*, Fundación Sabino Arana kultur elkargoa, Bilbao.
- Sadaba, T. (1999): "Comunicación y conflicto terrorista: la 'segunda transición' de los medios" in Rodríguez R. /Sadaba T. (editoreak) *Periodistas ante conflictos. El papel de los medios de comunicación en situación de crisis*, Eunsa, Iruñea.
- Schlesinger, P. (1991): *Media, State and Nation: Political Violence and Collective Identities*, SAGE.
- Soria, C. (ed.) (1987): *Prensa paz, violencia y terrorismo. La crisis de credibilidad de los informadores*, Eunsa, Iruñea.
- Unesco, "Declaration on Fundamental Principles concerning to the Contribution to the mass-media to Strengthening Peace and International Understanding, to the Promotion of the Human Rights and to the Countering Racism, Apartheid and Incitement to War", UNESCOko 20. Biltzar nagusia, 1978ko azaroaren 22a, Paris.
- Zallo R. eta Ramirez de la Piscina, Tx. (1999): "Los medios de comunicación en el escenario abierto en Euskal Herria", *Jornada de Trabajo sobre los medios en el nuevo escenario*, Instituto M. Robles Aranguiz / Fundación Ipar Heago, Bilbo.